

Durangoko gobernu taldeak alderdi politikoak bildu ditu udal mailan neurri berriak adosteko

Besteak beste, protokolo bat prestatu dute azaroaren 1erako, Santu Guztien Egunerako.

Bere eskumenen barruan, Durangoko Udalak COVID-19aren aurrean kontzientziazteko eta herritarrekin lankidetzan aritzeko neurri berriak hartuko ditu. Eusko Jaurlaritzak ostegun honetan bertan neurriak hartzeko zain, Durangoko gobernu taldeak Bozeramaileen Batzorde batera deitu ditu alderdi politikoak.

Batzorde horretan kontzientziazio- eta prebentzio-neurri berriak hartu dira. Asteazken honetan, Udalak dekretu bat argitaratu du, eta bertan udal jarduerak eta ikastaroak bertan behera utzi edo atzeratu ditu, egiten ari diren baheketa masiboaren emaitza jakin arte. Dekretu horren aurrean, dagoeneko 27 jarduera atzeratu dira.

Gainera, baheketaren emaitzak jakin arte, jarduera guztiak bertan behera uzteko eta atzeratzeko edo osasun-neurriak zorrozteko gomendatu zaie herriko kirol elkarte eta klubei.

"Udal batek ezin ditu Eusko Jaurlaritzari dagozkion erabakiak hartu, hala nola, edukiera edo ordutegien arabekoak, baina bai durangarrei zaintza mantentzen lagun diezaieketen beste neurri batzuk har ditzakegula. Zentzu horretan, oso

garrantzitsua ikusten genuen oposizioa neurriak adosteko bilera batera gonbidatzea", azaldu dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julian Rios alkateordeak.

Aste honetan jarduerak atzeratzearekin batera, Udaleko arduradunek protokolo bat prestatuko dute azaroaren 1erako, Santu Guztien Egunerako, hilerrian pilaketak saihesteko.

Gainera, megafoniadun auto batek eta herriko eraikin guztietan jarritako bando batek Landako Erakustazokako baheketan parte hartzea eskatuko diete 13 eta 40 urte bitarteko durangarrei.

Horrez gain, kaleak desinfektatzen jarraituko dira egunero 6:00etatik 9:00etara, eta arratsaldeetan, berriz, espazio publikoak desinfektatuko dituzte. Irailaren erdialdetik, gainera, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren presentzia berrindartu da. Gainera, egunero edukiontziak, anbulatorioa, autobus-geltokiak eta haurrentzako jolas-guneak desinfektatzen jarraituko da.

Bestalde, udal arduradunak anbulatorioarekin eta ikastetxeekin harremanetan jarriko dira, sarrera eta irteeretan eraikin horietatik kanpo sortzen diren ilara eta taldetxo guztiak sahiesten saiatzeko.